



ESTATUTUAK

Aoiz Plaza, 1, 4.solairua
48015 - BILBO



Nahi izanez gero, J0D0Z-T2Y0A-D594 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T2Y0A-D594 en la sede electronica <https://euskadi.eus/localizador>



IKAS KULTUR ELKARTEA, AISIOLA

ESTATUTUAK

LEHENENGO ATALBURUA

1. Artikulua

1993ko maiatzaren 10ean, B/3858/93 erregistro-zenbakiarekin inskribatutako

IKAS KULTUR ELKARTEA AISIOLA

ELKARTEAren estatutu hauek aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.

Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. Artikulua

Elkarteko bazkideak Ikastolak direla kontuan izanik, bazkideek eta Elkarteak antolaturiko proiektuetan partaide direnen arteko elkarganatze bidetzat euskara ardatz eta pertsonaren osotasunezko formazioa helburutzat hartuta, pertsonen dagozkien ingurunea, kultura, ohiturak, sineskerak, adierazpenak... izango dira erabiliko diren baliabideak.

Helburu orokor hau bideratzeko, bakoitzak bere helburu zehatzagoak dituelarik hiru ekintza arlotan arituko da Elkarteak.



Irabazpenak lortzeko edo politikagintzarako asmorik gabeko helburuok lortzeko, legearen arabera honako jarduerak burutuko dira:

1.- Gazte-jardueren helburuak:

- Aisialdiko esparruan, gazteen jarduerekin lotutako formazio proiektuak sortu. Horien artean AISIOLA, AISIALDIRAKO ESKOLA sortzea eta aurrera ateratzea da helburu nagusia.

AISIOLA AISIALDIRAKO ESKOLAREN helburuak:

- Euskalduna eta euskara lan hizkuntza duen aisialdiko titulazio propioa sortu.
 - Ikastoletako gazteei heziketa integrala eman aisialdiko heziketaren bidez.
 - Kalitatezko aisialdirako hezitzaileak hezi, bai ezagutza teoriko bai praktikoen eskuratze aldetik.
 - Ikastoletako eremu ez-formalerako langile kualifikatuak prestatu.
 - Ikastolen hezkuntza proiektuan oinarritutako ikasmaterial propioarekin gazteak hezi.
 - Ikastoletan aisialdiko eremu berri eta sendoa sortu.
 - Ikastolen aisialdiko eremua koordinatzeko erreferente izan.
- Gazteen arteko eta gazteen eta inguruaren arteko harremanak bultzatu.
- Giza-kultur, jolasaldi eta hezkuntza jarduerak bultzatu.
- Komunikakor, partehartzaile, kementsu eta sortzaile izango den gizartea sortarazteko, beharrezko baloreak sustatu.

2.- Kirol-helburuak:

- Euskararen bidez, kirolzaletasuna piztu.
- Gazte eta helduen artean ezinbestekoa den partaidetza bultzatu.
- Kirol ezberdinak eginez, partaidetza ugaritu.
- Kirolaz, jolas bezala, gozatu.
- Kirol jardueratan ingurune alaia sortu.
- Kirol ezberdinak eratu.
- Kirol autoktonoak indartu.
- Kirolaren bidez, behar bada lehentasuna emanik, heziketa zaindu.

3.- Kultur helburuak:

- Euskal Kulturaren ezaugarriak bultzatu eta hauekiko begirunezko jarrerak sortu: dantza, Euskal



Herriaren kondaira, artea, musika eta abar.

- Herri edo hiriburu ezberdinetako giza-kultur jardueratan partaidetza areagotu.
- Kultur ezberdinen arteko begirune eta trukaketa bideratu.
- Euskara erabiliz, kultur proiektuak eratu.
- Era guztietako bilera eta kirol-kultur topaketak antolatu kirol sail bereziak sortuaz, ikastaroak, hitzaldiak eta zabalkunde eta hobekuntzarako agerraldiak antolatuz eta lehiaketak, erakusketak, bekak, sariak... eta helburuok lortzeko beste edozein bide suspertzaile batzuk.
- Zuzendaritza Batzordearen oniritziz, informagarri diren zerbitzu edota beharrezko hainbat jarduera, liburutegi, kontsultategi eta Elkarteari dagozkion argitarapenak eratu ditzake. Bere helburuekin bat datozen jardueratan, gai diren organoekin loturik dauden zenbait agintari edo beste erakunde eta korporazioekin batera lankidetzan ahal izango du.

Helburu horiek lortzeko, **JARDUERA HAUEK** egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

- a) hitzaldiak, kontsultak, orientazioa... antolatu eta garatu:
- b) elkarte ezberdinen arteko komunikazioa lortzeko buletin edo aldizkaria sortu.
- c) irteerak, eskola-liburutegiak, lehiaketak, udakekuak... bultzatu.
- d) materialak sortzeko aukerak aztertu.
- e) kirol ekintzak eta lehiaketak bultzatu.
- f) ikasleen arteko trukaketak bultzatu.

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

HELBIDE SOZIALA

3. Artikulua: Egoitza beste herri batera aldatzeko, estatutuak aldatu beharko dira, eta horregatik ezohiko batzar nagusian erabakia hartuko da.

Elkarte honen helbide nagusia, honako hau izatera pasako da:

Aoiz Plaza, 1, 4.solairua. 48015 Bilbo, Bizkaia



Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du egoitza soziala lekuz aldatzea, elkarteak herria eta gainerako lokalak aldatzea ez dakarrenean, eta Elkarteen Erregistroari jakinaraziko dio zuzendaritza berria. Egoitza beste herri batera aldatzeko, estatutuak aldatu beharko dira.

LURRALDE-EREMUA

4. Artikulua: Elkarthe honen ekintzak **Euskal Herrian** gauzatuko dira.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. Artikulua:

Elkarthea iraunkorra izateko eratu da, eta VI. kapituluan esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkarthearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN ATALBURUA

AGINTE-ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. Artikulua: Elkarthearen Aginte eta Administrazio ardura, ondorengo elkargoaren organoena izango da:

- Bazkideen Batzar Orokorra, organo gorena.
- Zuzendaritza-Batzordea, zuzendaritzaren elkargoaren organo iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. Artikulua:

Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Hona Batzar Orokorraren ahalmenak:



- a. Elkaratearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b. Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d. Estatutuak aldatzea.
- e. Elkarreak desegitea.
- f. Presidentetza, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g. Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- h. Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- i. Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte- organoari eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- j. Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- k. Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. Artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta ez-ohiko bilkurak egingo ditu.

9. Artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. Artikulua.-

Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen %33,33 ek eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolanahi ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

- a. Estatutuak aldatzeko.
- b. Elkarrea desegiteko.

11. Artikulua.-

Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira; bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin.



Deialdia egiten denetik gutxienez hamar egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordubeteko tarte utzi beharko da.

Iragarkian 2. deialdi-eguna jasota ez balego, batzar-eguna baino hiru egun lehenago azaldu beharko da noiz izango den.

Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen erdia bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. Artikulua.-

Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Dena den, bertaratutakoen edo ordezkaturakoen gehiengo osoa beharko da (erdia + 1), honako erabaki hauek hartzeko:

- a. Elkartea desagitea, hala badagokio
- b. Estatutuak aldatzea, arauetan jasotakoaren arabera
- c. Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d. Zuzendaritza batzordea aukeratzea.

13. Artikulua.-

Bazkideek edozein bazkideri utzi diezakete beren ordezkaritza, Batzar Orokorrera joateari dagokionez. Ordezkaritza hori emateko baimena idatzirik egin beharko da, eta batzordeko idazkariak saioa hasi baino ordubete aurretik eduki beharko du. Elkarrearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezake.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. Artikulua: Zuzendaritza-Batzordea honako hauek osotuko dute: Lehendakariak, Lehendakariordeak, Idazkariak, Diruzainak eta hiru Bokak.

Gutxienez seihileko behin bildu beharko du, eta elkarren ekintzak bideratzeko beharrezkoa den guztietan.



15. Artikulua: Zuzendaritza-Batzordeko kideren bat bilera horietara bi aldiz jarraian, edo hiru aldiz txandaka ez bada joaten, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen behintzat.

16. Artikulua: Zuzendaritza-Batzordeko kargudunak, Batzar Orokorrak hautatuko ditu eta lau urtetarako izango dira, Batzordeak berriz ezeztatu ezean, eta behin eta berriro hautatu ahal izango dira.

Kargu horiek, lehenengo txandan kideen % 50a berrituko da, Lehendakaria eta Idazkaria barne direlarik. Bigarrenean, gaineranzkoa, Lehendakariordea eta Diruzaina barne direlarik.

17. Artikulua: Zuzendaritza-Batzordeko kidea izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Elkartea osatzen duten ikastolen kasuan

a) Estatutuetan esaten den eran izendatua izatea.

b) Elkarteko bazkide izatea.

- Ikastola ordezkatzeko duten pertsonen kasuan

c) Adinez nagusi edo adinez txiki izanez gero bere buru-jabe izatea, eta herritar-eskubide guztiak izatea.

18. Artikulua: Zuzendaritza-Batzordekide kargua, Batzar Orokorrak izendatu ondoren, onartutakoan edo jabetzerakoan hartuko da.

Karguak ordainik gabekoak izango dira. Dena den, Batzar Orokorrak egun-sariak eta gastuak ordaintzea erabaki dezake.

19. Artikulua: Zuzendaritza-Batzordeko kideek honako kasu hauetan utziko dituzte karguak:

a) Agintealdia betetakoan.

b) Kargua uztean.

c) Bazkide izateari utzitakoan, edo ezintasun-zioak dituenean.

d) Batzar Orokorrak ezeztearabakiz gero, Estatutu hauetako 16. atalean jarritakoaren arabera.

a) puntuan agertzen dena baldin bada kargua uztearen arrazoia, Zuzendaritza-Batzordeko kideek batean jarraitu beharko dute lehenengo Batzar Orokorra egin arte. Batzar horrek aukeratuko ditu kargudun berriak.

b),c),d) puntuetan agertzen dena baldin bada arrazoia, Zuzendaritza-Batzordeak berak hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onartu ala ezeztu. Ezezkoa bada, dagokion izendapena egingo da.



Batzorde honen osieran gertatutako aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erroldari.

20. Artikulua: Zuzendaritza-Batzordearen betebeharrak hauek dira:

- a) Elkartearen ohiko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren norabidearen arabera eta bere esanetara.
- b) Elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontu eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari, onar dezan, aurkeztea.
- d) Batzar Orokorraren bileretako aztergai-zerrenda egitea, eta ohizko Batzar Orokorraren eta bereziki deialdiak erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horretarako behar diren neurriak hartzea.
- f) Batzar Orokorrak berari izendatuta ez duen beste edozein eginkizun.

21. Atala: Zuzendaritza-Batzordeak, Lehendakariak eta, hala balegokio, lehendakariordeak erabakitako bakoitzean egingo ditu bilera, euren kabuz nahiz batzordekideren batek eskatuta. Bileretako burua lehendakaria izango da edo, bertan ez balego, lehendakariordea. Biak falta badira, berriz, Batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak onartu beharko ditu. Horretarako, gutxienez batzordekide kopuruaren erdiak egon beharko du Batzarrean.

Idazkariak bilera-agiriak egingo ditu. Agiri horiek dagokien Liburuan jasoko dira idatziz.

ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEAK

PRESIDENTETZA

22. Artikulua: Elkarteko presidentek, elkartearen legezko ordezkaria beregain du. Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak aurrera eramango ditu. Era berean, aipaturiko bi sail horien buru izango da.

23. Artikulua: Zuzendaritza-Batzordeari edo Batzar Orokorrari oso-osoan ez dagozkien aginpideak ere lehendakariaren esku egongo dira, batez ere honako hauek:

- a) Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak egiten dituzten bileren deiak egin eta bukatutzat ematea; bai batean eta bai bestean sortzen diren eztabaidak zuzentzea; eta boto-berdinketa gertatuz



gero, boto ebazleaz erabakitzea.

- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza-Batzordeari proposatzea. Aldi berean, elkartearen zereginak bultzatu eta zuzentzea.
- c) Balioz erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortu daitezkeen premiazko arazoei irtenbideak ematea, eta Zuzendaritza-Batzordeari lehenengo bilkuran horien berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

PRESIDENTEORDETZA

24. Artikulua: Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio, eta honen aldi-baterako ezintasun bitartean ordezkatu egingo du. Era berean, Lehendakariak berari emandako ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARIA

25. Artikulua: Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak hartu eta bideratzea, fitxategi eta Bazkideen errolda liburua zaintzea, eta Agiri-Liburuaren zaintza eta idazketaren arduratzea. Era berean, Elkarteen arloan indarrean dauden legezko erabakiak bete daitezzen arduratuko da, Erakundearen agiri ofizialak zainduz, Elkarte-liburu eta agiritegi edukia egiaztatuz Zuzendaritza-Batzordearen hautaketari eta elkarte-egoitza aldatzeari buruzko beharrezko jakinerazpenak dagokion agintaritzarengana bideratuz.

DIRUZAINA

26. Artikulua: Diruzainak, egindako sarrera eta ordainketen berri emango du, diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoeraren berri emango du. Guzti horiek Zuzendaritza-Batzordearen aurrean aurkeztu behar dira, eta honek Batzar Orokorrari, onartu ditzan aurkeztu .

ZUZENDARI-KUDEATZAILEA:

26. bis Artikulua: Elkarateak zuzendari-kudeatzailea izendatu ahal izango du harremanak, gestio plana, kontu-liburua edo beste edozein arloetaz arduratzeko.



BATZORDEKIDEAK

27. Artikulua Bokalek beren karguei dagozkien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berakeskatzen dizkienak ere.

HIRUGARREN ATALBURUA

BAZKIDEAK: ONARPEN-BIDEAK ETA BAZKIDE MOTAK

28. Artikulua: Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek dituzten ikastola guztiak izan daitezke elkarteko bazkide: Eskumena duen organoak bere baitan hartutako erabaki baliodunaren kopia aurkeztu behar du, eta bertan adieraziko dira bai elkartzeko borondatea, bai pertsona juridikoaren izenean arituko denaren izendapena.

29. Artikulua: Elkartera sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea. Idatzi hori Lehendakariari zuzenduko zaio. Lehendakariak horren berri Zuzendaritza-Batzordeari emango dio eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena Elkartean onartu ala ez. Dena den, Batzar Orokorrari gora-deia egiterik izango da.

29. Artikulua bis: Batzar Orokorraren erabakiz, Elkartekak Ohorezko Bazkide izendatu ahal izango ditu bazkide izateko baldintza guztiak bete arren Elkartearen helburuak betetzeko bertaratu ezineko lagunak.

Bazkide hauek, ohorezko dira soilik, eta beraz ez dira legezko bazkide, ez dute Elkarteko Zuzendaritza eta Administrazioarako jardute-sailetan parte hartzeko eskubiderik ez eta inongo betebeharririk ere.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. Artikulua: Bazkide orok honako eskubide hauek ditu:

- 1- Elkarre-legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jarduteak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu edo ezagutzeko aukera egunetik hasi eta 40 eguneko epean.



2- Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarrera eta gastu-kontuen egoera eta elkarteko ekintzen garapenaren berri uneko jakitekoa eta parte hartzea.

3- Batzar Orokorretan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea erabiltzekoa, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatekoa.

Bazkideak ikastolak diren horretan, bazkide bakoitzak duen boto kopurua, ikastolaren ikasle kopuruaren arabera izango da, boto tarteak honela definitzen direlarik:

- 1 eta 500 ikasle artean dituen ikastolak: boto 1.
- 501 eta 1.000 ikasle artean dituen ikastolak: 2 boto.
- 1001 eta 1.500 ikasle artean dituen ikastolak: 3 boto.
- 1.501 ikasle baino gehiago dituen ikastolak: 4 boto.

4- Elkarteko Estatutuen arabera, Elkarteko zuzendaritza-sailetan parte hartzekoa eta sail horietarako hautagai nahiz hautesle izatekoa.

5.- Egungo legeriaren arabera, bazkideen erroldan egon, eta erakundearen ikurrik baldin balego, erabiltzeko ahalmena izan.

6.- Bai Estatutuen bai eta ere baldin balego Barne Arautegiaren ale bat eskuratzeko, eta eskari eta arrangurak Jardute Sailari aurkeztekoa.

7.- Jarduera kolektiboetan parte hartzeko eta bazkide guztientzat erabilgarri eta kasuan kasuko posible diren (egoitza soziala, liburutegiak...eta abar) baliabideak erabiltzeko.

8- Zigor- neurriak hartu baino lehen, bazkideak idatziz adierazitakoa kontutan hartzekoa eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiak azaldu dakizkionekoa. Neurri horiek hartzeko arrazoiek bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean oinarritu daitezke soilik.

9- Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

31. Artikulua: Bazkideen betebeharrak honako hauek dira:

a- Elkarrearen helburuak lortzeko lankidetzak ekintza ematea.

b- Batzar Orokorrak ezarritako bazkide-saria ordaintzea, gastuak ordaintzeko.

c- Estatutu hauek eta Elkarrearen zuzendaritza-sailek balioz hartutako erabakiak bete eta horiei men egitea.

ZIGOR ARAUAK

32. Artikulua: Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza-Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz hausteagatik Zuzendaritza-Batzordeak bazkideak zigortu ahal izango ditu.

Hamabost egunetik hilabetera arte eskubideak kentzetik Elkartetik betirako egozterainokoa izan



daiteke zigorra, beti ere 34 eta 37 bitarteko atalen arabera, biak barne.

Horretarako, Elkarre-buruak zigorgarri izan daitezkeen jokabideak hartzeko erabakia hartu ahal izango du. Azterketa horiek Idazkaritzak eramango ditu aurrera, Zuzendaritza-Batzordeari neurri egokiak hartzeko proposatuko diolarik. Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza-Batzordeak izango du, eta zigorra ezarri aurretik arazoa doakionak adierazitakoa kontutan hartu beharko da.

Aipatu erabakiren aurka - beti ere arrazoiak eman beharko dituen - Batzar Orokorrera jotzerik izango da, 30.1 atalean oharmandakoa ekintzei ekitearen kaltetan gabe.

BAZKIDETASUNA GALTZEA

33. Artikulua: Hona bazkidetasuna galtzeko arrazoiak:

1- Pertsona juridikoen kasuan, desegitea.

2- Bazkidetza nahita aldentzea.

3- Egotzi izana, Batzar Orokorra erabakitako zigorra dela eta, honako kasu honetan:

* Estatututan Batzar Orokorrak eta Zuzendaritza-Batzordeak balioz hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki haustea behin eta berriro.

34. Artikulua: Bazkideren bat aurreko atalean aipatutako azkenengo kasuan aurkituz gero, Elkarre-buruak agindu diezaioke Idazkariari, horien berri egokia lortzearen, aurretiazko eginbide batu egin ditzan. Eginbide horiek ikusita, Elkarre-buruak ekintza bertan behera uztea, zigor-espedienteari ekitea - 32. atalean oharmandako eran -, edota Elkartetik egozteko espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

Azken kasu horretan, Idazkariak, egintzak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio dagokionari, leporatzen zaizkion salaketen berri emanez. Salaketa horiei erantzuteko bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu 10 eguneko epean. Epe hori amaituta, beti ere, Zuzendaritza-Batzordeko lehenengo bilkurara eramango du kasua eta bertan hartuko erabaki egokia. Horretarako Batzarkideetatik erdiak baino bat gehiagoko "quoruma" beharrezkoa izango da.

35. Artikulua: Elkartetik kanporatzeko erabakia dagokionari jakin araziko zaio eta, era beran azalduko errekurtsioa aurkez dezakeela egin dadin hurrengo Batzar Orokor Berezian. Batzar horretarako deirik ez bada egiten hiru hilabeteren barruan, aipatu errekurtsioa nahikoa izango da batzarra egiteko. Bien bitartean, Elkarrearen lehendakariak dagokionari bazkide-eskubideak kentzea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza-Batzordeko kide bada, kargu hori utzi erazi egin beharko dio.

Kanporatzeko espedientea Batzar Orokorrari aurkeztuz gero, Idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza-Batzordeak dagokionak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza



eman ahal izan diezaion Batzar Orokorrari, honek dagokion erabakia har dezan.

36. Artikulua: Kanporatze-erabakia - beti ere arrazoiak emanda -, dagokionari jakin eraziko zaio eta honek, eskubideaz baliatuz, Auzitegieta jo ahal izango du bere ustez aipatu erabakia Legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

37. Artikulua: Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan, - berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako -, lehendik bete gabe dituen betebeharrak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.

LAUGARREN ATALBURUA

SOZIAETATE ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

38. Artikulua: Elkarteak ez du ondare sozialik.

39. Artikulua: Elkarteak, bere ekintzak aurrera eramateko, honako diru-baliabide hauek izan ditzake.

a- Batzar Orokorrak ezarritako sarrera-kuotak.

b- Batzar Orokorrak erabakitako aldizkako kuota.

c- Dazkan ondasunetatik ateratzen dituen ekoizpenak eta dagozkion eskubideak. Baita legezt hartu ditzakeen diru-laguntza, ondare eta dohaintzak ere.

d- Estatutuen helburuak kontutan harturik Zuzendaritza-Batzordeak erabakitako ekintza bidezkoak dakarzit irabaziak, beti ere estatutu hauetan jasotako helburuen esparruan.

Elkarteak lortutako diru-baliabideak ezin izango dira inoiz bazkideen artean bananduak izan. Urteko emaitzak igaro ondoren, elkarte-ondarerik gelditzen baldin bada, Bizkaiko Ikastolen Elkartea Koop.Elk.ari emango zaio.

Elkartearen ekonomi-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31an itxiko da.

BOSTGARREN ATALBURUA

ESTATUTUEN ALDAKETA

40. Artikulua: Estatutuen aldaketa Zuzendaritza-Batzordearen ekimenez edota bazkideen herenak



eskatuta, Zuzendaritza-Batzordeak hala erabakiz gero egin daiteke. Dena den, bi kasuetan Zuzendaritza-Batzordeak hiru bazkidek osatutako lantalde bat izendatuko du aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo horrek Zuzendaritza-Batzordeak ezarritako arte-arauei jarraitu beharko die eta Batzorde berak jarriko duela egitasmoa amaitzeko epea.

41. Artikulua: Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, Elkarte-buruak egingo den lehenengo Zuzendaritza-Batzordearen aztergai-zerrendan sartuko du. Batzorde horrek egitasmoa onartu, edo berriz ere lantaldeari itzuliko dio atzera ere aztertzeko.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza-Batzordeak hurrengo Batzar Orokorraren Bereziazen aztergai-zerrendan sartzea erabakiko du edo horretarako propio bilerako deia egitea.

42. Artikulua: Batzarrerako deiarekin batera Estatutuen aldaketa testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa-proposamenon berri Batzar Orokorrari emango zaio, beti ere batzarra egin baino zortzi egun lehenago Idazkaritzan jaso badira. Zuzenketak nahiz banaka nahiz taldeka egin daitezke. Idatziz egin beharko dira eta beste testu-aukera izan beharko du.

SEIGARREN ATALBURUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

43. Artikulua: Elkarte honako kasuetan desegingo da:

- 1-Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
- 2-Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
- 3-Beste elkarte batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
- 4-Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
- 5-Epai irmo batek elkarte desegitea agintzen duelako.
- 6-Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

44. Atala: Elkarte deseginez gero, erabakia hartu duen Batzar Orokorrak kitapen-Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritzako Batzordekideek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko dira.



Bazkideekiko eta besterekiko Elkartearen zorrak ordaindu ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, Bizkaiko Ikastolen Elkartea Koop. Elkarteari emango zaio.

AZKEN ERABAKIAK

LEHENENGOA: Zuzendaritza-Batzordea izango da Estatutu hauetan azaltzen diren aginduak ulertarazi eta Estatutu horien hutsuneak beteko dituen jardute-sail aginpideduna, Elkarteei buruz indarrean dauden legezko araupean beti, eta aurreko Batzar Orokorrari, onar dezan, egindako guztiaren berri emanaz.

BIGARRENA: Estatutu hauek Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak baliotzat berari dagokion aginpide-esparruan, balioz hartzen dituzten erabaki-bidez aldatuko dira, eta Bosgarren Atalean oharmandakoarekin bat etorririk.

HIRUGARRENA: Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak Barne-Araudi bat onartu ahal izango du. Horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduak aldatuko.